

## **Bortzirietako euskarazko aldizkariak diruz laguntzeko deialdia OINARRIAK**

**1.- Oinarrien xedea.** Deialdi honen xedea da Bortzirietako euskarazko aldizkariak diruz laguntzeko modua arautzea.

**2.- Diru laguntzaren onuradunak.** Deialdi honetan arautzen diren laguntzen hartzaile izan daiteke Bortzirietan egoitza fiskala duen pertsona fisiko edo juridiko oro, euskarazko tokiko aldizkari baten jabe edo kudeatzaile dena.

**3.- Diru laguntzaren gaiak.** Diruz lagunduko dira euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak, Bortzirietako herri guztietan banatzen direnak.

Ondoko hauek ez dute laguntzarik hartzen ahalko:

- a) Euskara erabiltzen duten gaztelaniazko hedabideek.
- b) Alderdi politikoek zein sindikatuek argitaratutakoek.
- c) Elkarrekin edo fundazioek beren bazkideen artean banatzeko argitaratutakoek.
- d) Eskola aldizkariak.
- e) Udalen informazio aldizkariak.
- f) Bortzirietako herri guztietara zabaltzen ez diren aldizkariak.

Diruz lagundutako jarduerak 2012ko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren arteko aldiari dagozkionak izanen dira.

**4.- Eskabideak aurkezteko epea.** Eskabideak aurkezteko epea 2012ko urtarrilaren 25etik otsailaren 10era bitartekoa izango da. Epe hori luzaezina izanen da.

**5.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.** Eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

- a) Eskabide ofiziala beteta.
- b) Identifikazio fiskaleko txartela.
- c) Diru sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza eta xehatua. Sarrerei dagokienez, bertzelako erakunde publikoetan eta bertze autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntza guztiak espresuki adieraziko dira, bai eta partikularrek emandakoak edo enpresa pribatuetako bertzelako diru sarrerak (babesak eta publizitatea, errate baterako). Gastuei dagokienez, ongi zehaztu behar dira langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak zein eta zenbatekoak diren.
- d) Hedabidearen *on-line* bertsioaren gaineko datuak (horrelakorik bada).
- f) Eskabidea baloratzeko aurkeztu nahi den gainerako dokumentazioa.

Dokumentazioa Bortzirietako Euskara Mankomunitatean (Herriko Plaza 7, 2. 31790 Arantza) aurkeztu behar da, edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikulua aurreikusitako edozein lekutan.

**6.- Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.** Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

**7.- Ebazpena.** Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak hartuko du, euskara teknikariaren txostena ikusita. Erabaki hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie.

**8.- Baloratzeko irizpideak.** Diru laguntzak baloratzeko, honako irizpide eta balioak izanen dira kontuan:

a) Urteko argitalpen kopurua: 15 puntu

- Urtean gehienez ere 10 ale argitaratzen dituztenen kasuan: 5 puntu
- Urtean 11 eta 20 ale bitartean argitaratzen dituztenen kasuan: 10 puntu
- Urtean 21 ale baino gehiago argitaratzen dituztenen kasuan: 15 puntu

b) Ale bakoitzeko orrialde kopurua: 15 puntu

- Gehienez ere 24 orrialde dituztenak: 5 puntu
- Gehienez ere 48 orrialde dituztenak: 10 puntu
- Horiek baino orrialde gehiago dituztenak: 15 puntu

c) Argitalpen bakoitzean Bortzirietan zabalduko ale kopurua:

- Gehienez ere 1.000 ale banatzen dituztenak: 5 puntu
- Gehienez ere 2.000 ale banatzen dituztenak: 10 puntu
- Horiek baino ale gehiago banatzen dituztenak: 15 puntu

d) *On-line* bertsioa izatea: 5 puntu

Gehienez ere 50 puntu erdiesten ahal dira, eta diru laguntza jasotzeko beharrezkoa da gutxienez 25 puntu batzea.

**9.- Diru laguntzaren zenbatekoa.** Aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru esleipena, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean banatuko da, deialdiko baldintzak bete eta ezarritako gutxienerako puntuazioa erdiesten dutenen artean betiere. Aurrekontuan aurreikusitako diru esleipen hori modu proportzionalan banatuko zaie eskatzaileei, lortutako puntuazioaren arabera.

**10.- Diru laguntzaren ordainketa.** Diru laguntza lau zati berdinetan ordainduko die Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eskatzaileei, hiru hilabete behin alegia. Horretarako diruz lagundutako aldiari egindakoari buruzko memoria zehaztua eta gastu zein diru sarreraren frogagiriak aurkeztu beharko ditu. Gainera, azken hiru hilabeteko dokumentazioarekin batera, zinpeko aitortpen bat aurkeztu beharko dute, adieraziz haien diru sarrerak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren horiek direla, eta ez gehiago; eta edozein kasutan sarrera horiek ez direla gastuak baino handiagoak izan.

Horiekin batera, diruz lagundutako aldiari dagozkion ale idatzi guztien lagina aurkeztu behar dira (paperean edo euskarri informatikoan). Ez da beharrezkoa izanen, argitaratu ahala, Bortzirietako Euskara Mankomunitatera bidali izan badira.

Aipatutako dokumentazioa hiru hilabeteko bakoitzaren bukaeran aurkeztu behar dute, hau da, martxoaren 30 baino lehen, ekainaren 29a baino lehen, irailaren 28a baino lehen, eta abenduaren 21a baino lehen.

Dokumentazioa Bortzirietako Euskara Mankomunitatean (Herriko Plaza 7, 2. 31790 Arantza) aurkeztu behar da, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikulua aurreikusitako edozein lekutan.

Dokumentazio hori aztertu ondotik, teknikariaren txostenean oinarrituta, lehendakariak hiru hilabeteko diru laguntza ordaintzea ebatziko du.

Onuradunak jarduera gauzatu duela behar bezala justifikatu ezean, ordainduriko laguntza osorik edo hein batean itzul dezala eskatzen ahalko zaio.

**11.- Bateragarritasuna.** Deialdi honetako diru laguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

**12.- Emandako diru laguntzen publizitatea egitea.** Onuradunek eman zaien diru laguntzaren publizitate egokia egin beharko dute, eta aldizkarian (eta web orrian, halakorik badute) adierazi beharko dute Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin egindako lana dela. Horretarako mankomunitatearen logotipoa erabiliko dute.

**13.- Datuen babesa.** Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 23ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

**14.- Auzibidea.** Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

**15.- Errekurtsoak.** Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtsu hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsua, administrazio egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Goiti jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi errekurtsua, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Arantzan, 2012ko urtarrilaren 17an  
Lehendakaria  
Jaime Iturria Mitxelena

Bortzirietako euskarazko aldizkariak diruz laguntzeko deialdia

Diru laguntza eskatzeko orria

<b>Erakunde eskatzailea</b>	
Izena	
Egoitza fiskala (helbidea, herria eta PK)	
Telefonoa	E-posta
<b>Arduraduna</b>	
Izen-deiturak	
<b>Hedabidearen fitxa teknikoa</b>	
✓ Argitalpenaren izena	
✓ Lege gordailua eta ISSN	
✓ Maiztasuna eta urteko zenbaki kopurua	
✓ Harpidetza kopurua edo tirada	
✓ Aleko orrialde kopurua	
✓ Lurralde hedadura	
<b>On line bertsioaren gaineko informazioa</b>	
<b>Aurreikusitako diru sarrerak eta gastuak (azalpena eta kopuruak)</b>	
<b>Diru sarrerak</b>	
Harpidetzak	
Publizitatea	
Bertze erakunde publikoen diru laguntzak (xehatuta)	
<u>Diru sarrerak guztira</u>	
<b>Gastuak</b>	
Langileen gastuak	
Funtzionamendu gastuak	
Inbertsio gastuak	
Ekoizpen gastuak	
Banaketa gastuak	
<u>Gastuak guztira</u>	
Lekua eta data	
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua	